

Xipri Ansellside

APAIZA ETA IDAZLEA

Eguberri new look

Eguberri dela, Papa Noel dela, Olen-
tzero dela, literatura luzea da. Gure
haur denboran, lo ginela, Jesus hau-
rrak uzten zigun zerbait tximinian,
ongi dirdirarazirik utzi oinetakoetan.

Ez zen ez Play Station, ez I-phonik.
Laranja bat aski zen gure atseginerako.

Geroztik mundua aldatu da. Etorri zaigu
Papa Noel, Ipar Ameriketatik, Coca-cola
edariak asmatuak, bere edariaren publizita-
tea egiteko baliatzen dela Eguberri.

Ikastola sortu zelarik, jakin genuen guk
bagenuela Olentzero. Baionako karriketa-
rik hasi eta Euskal Herri barnean ere sartu
da. Baina ez dauka Papa Noelen
hedadurarik. Ez duzue nehon
ikusiko soka batetik dilindan,
etxeko leihotik sartu nahiz. Nire
auzoan hiru Papa Noel izan dira
horrela bata bestearen azpian.
Eguberri heldu dira?

Egun irakurtzen nuen erlijio
kutsua galtzen ari dela Eguberri,
lehenagoko Egun Berri pagano
hartara itzultzeko. Jende asko
ibili da oraino elizan egun
horren karietara. Izturitz-Aihe-
rran 1.300 jende bizi da, eta
Eguberri 700 bat joan da eliza-
rat. Euskaldun gutiz gehienak.
Joaten ez direnak, lehenagoko hartarat
itzuli direla? Ez, ziurki.

Paganoak ez ziren sinesgabeak. Jainko
batean sinesten zuten, eta nola! Ez bada



INIGO AZKONA

ere XXI. mendekoen ikusmoldearekin.
Egun Berria erlijio besta zen.

Bazitezkeen garai hartan ere sinesgabeak,
baina oso marginalizatuak. Orain aldiz bai,
sinesgabeen Eguberri bati buruz goazela.
Eguberri *new look* bat ospatzen dute girstino-
ek berek sinkretismo berri batean.

Baina sinesgabe direla uste duten horiek
ez dutela sinesten? Bai! Eta nornahik baino
gehiago. Sinesten dute Kontsumismo jain-
ko berrian. Sinesten dute erosi ahala baino
gehiago erosiz dutela zoriona aurkituko. Hi
bahaiz, ni banauk, zein gehiagoka auzoekin,
nork diru gehiago xahutu. Otoi ez hunki
dogma hori!

Zoriona aurkitzen dute? Zorio-
na ematen digu murgilduak gau-
den kontsumismo zibilizazioak?
Nolaz dira European, urtekal,
dozena milaka beren buruaz beste
egiten dutenak? 12.000 Frantzia
berean. Bide istripuz baino lau
aldiz gehiago! Gaztetan berdin!

Beteleemeko barruki hartan
aldiz, ongarri usaina eta ardi marra-
ken erdian bazen zoriona. Haur
berri batek eta haur horren alderat
zen maitasunak ekarria, aitamen ala
artzainen aldetik, pinta erdi esnea
eta bi talo opariak lekuko.

Lehenagoko kontuak horiek oro.
Aurrerapen, garapen, erosmen ahal eta
bestetarik igurikatzen dugu zoriona guk.
Eta igurikatuko. ■

« Sinesgabe direla uste duten

horiek ez dutela sinesten?

Nornahik baino gehiago.

Sinesten dute Kontsumismo

jainko berrian

»

TXANDAN

Castillo Suarez



Martha Gellhorn izan
zen gerra-kazetaritza
lanak egin zituen lehen-
biziko emakumetako bat,
jende askok Ernest Hemingwayrekin
ezkondua egon zelako ezagutzen badu ere.
Kronika hutsez harago, gogoeta sakonak egiten
zituen. Berriak osatzen zituen ustez berriak ez zegoen
tokietan testigantza idatzirik ez zegoelako. Horrela,
XX. mendeko gerra-kazetaririk onenetakoa izan zen.
Gerra batean burua ez galtzeko bide bakarra zegoela
idatzi zuen Gellhorn: "Gogoeta egiteko gaitasuna

Burua galdu

lokartu behar da, bai eta senti-
beratasuna ere; barre egin
behar da gauza txikiengatik
ere; eta burua galduz joan poli-
ki-poliki, baina atzera bueltarik gabe".

Bizirik irauteko estrategia gogorra iruditu zitzaidan
lehenbiziko aldiz irakurri nuenean, baina susmoa daukat
denok erabiltzen dugula gure eguneroko gerra txikietan
nola edo hala. Hala ere, iruditzen zait larriagoa dela
gurea irri egiteko gaitasuna erdi lokartu izaten dugulako
maiz. Irri noiz egin behar dugun esateko zain bageunde
bezala, telebistako saio txarretan bezala. ■